

## Arantza Santesteban

# «Oso gustura egingo nuke etxeetan 24 orduz lan egiten duten emakume langileen inguruko filma»

Kartzela, emakume zapaldu askoren bizitza, politika egiteko molde berriak... filmatu ezin diren munduak zinemara eraman nahi ditu dokumentalgile honek.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

### Historiagile ikasketaz eta zinemagile bo-kazioz?

Historia ikasi nuen ez dakit oso ongi zergatik. UBIIn oso historia irakasle ona izan nuen eta horrek eragin handia izan zuen, nire ustez. Zinemarekin lotutakoa ez dakit bokaziozkoa den, baina orain hori da barruak eskatzen didana. Bartzelonan zinema dokumentalaren diplomatura egin nuen eta orain UNEDen zinema-ikerketan graduondokoa egiten ari naiz. Gauza xume batzuk egin ditut azken urte hauetan.

### Ikus-entzunezkoen lengoaia aproposa da ideiak transmititzeko?

Zalantzarik gabe. Artea oro har. Nire interesa da ohiko gaiak modu desberdin eta urratzaile batean adieraztea. Askotan ikusten da, adibidez, mezu politikoei ohiko diskurtsoen bidez edukiak blokeatzen dituztela. Arteak beti beste buelta batzuk ematen dizkie ohiko gaiei eta horregatik zinema, nire kasuan, tresna interesgarria iruditzen zait pentsarazteko eta gauza batzuk zalantzan jartzeko.

### Belaunaldi gazteentzako bereziki ego-kia?

Bai. Irudiaren munduan bizi gara gero eta gehiago. Testuari lotutako kultura batetik irudian oinarritutako ulermen edo pentsaera batera pasatzen ari gara. Hala ere, niri pena ematen dit irakurtzeko gure gaitasuna, hamar minutu baino gehiago testu batean kontzentratuta egoteko ahalmena galtzeak, finean. Saiatzen naiz hori dena ez galtzen eta horregatik liburuak erosi eta irakurtzen ditut. Pantailen gehiegizko erabilerak gaixotzen gaitu. Interneteko mugarik ezak gainezka egiten digu.

### Militantzia politikoa kapitulu itxi bat da zure bizitzan?

Gakoa da militantzia politikoa zer ulertzen dugun. Konpromiso politikoa ez da bakarrik egitura jakin batean organikoki parte hartzea, niretzako askoz gehiago da eta bizitzan zehar hainbat forma har ditzake. Gauza asko eraldatu daitezke eremu askotan lanean. Lagun batek esaten zidan bizitza izan daitekeela agian ez

oso luzea baina bai oso zabala eta bizitzari zabalera ematea gustatzen zait. Ez

## Arantza Santesteban Pérez

Iruña, 1979

Historian lizentziatua (EHU, 2011) eta Bartzelonako CCDFBn zinema dokumentalean diplomaduna. Mugimendu Feministako kidea. Ezker Abertzaleko kide izanik 2007an atxilotu eta bi urte eta erdi eman zituen kartzelan. Irati Gorostidirekin batera *Euritan* film dokumentalaren egilea da. Durangoko Azokan aurkeztu zuten eta berriki zuzendaritza profesionalaren sari bat lortu eta Kimuak katalogorako hautatua izan da. Uharte Arte Garaikidearen Zentroan komisariotzaren inguruko ikerketa proiektu bat garatzeko egoitza egin berri du. Gaur egun Emagin elkartearen ikertzaile eta hezitzaile egiten du lan.



dut ulertzen bizitza norabide bakarrean. Saiatzen naiz beti hainbat soka muturrei tira egiten eta ez dut uste hori nire iraganaren ukazioa denik, jarraipena emateko modu bat baizik. Nire ustez Euskal Herrian gatazka politikoak pisu handia izan du, eta zein testuingurutan jaiotzen zinen, eta non ibiltzen zinen, oso erraza zen talka horretan sartzea. Jende askok oso egoera gogorrek bizi izan ditu. Gure belaunaldian oso garai gogorra egokitu zitzaigun. Batzuek geneukan militantzia politiko bat, beste edonon egiten denaren antzekoa, baina testuinguru horretan kokatua egoteagatik legez kanpo zegoen eta kartzelara joateko arriskuan jartzen zintuen. Horrela, jende asko joan gara kartzelara, gutako asko oso gazte izanik. Orain ematen du postgatazka egoeran gaudela, baina pasa zaigun guztia sendatzeko modurik, gunerik eta aitortzarik ez dugu izan. Aldiz, ezer gertatu ez balitz bezala bizitzea eskatzen zaigu; polizia jazarpena, torturak, kartzela... jasan ez bagenitu bezala aritzea. Bizi normala egin behar dugu: lana, erresistentzia artistikoak, masterrak... Hori dena oso zaila da eta norberak ahal duen moduan egiten du.

### **Bi urte eta erdi kartzelan eta ia zortzi epaiketaren zain. Nolako esperientzia izan da?**

Kartzela gogorra da, baina hori bezain gogorra da irteera prozesua, nire kasuan bederen. Ezin da orokortu, baina niretzat hala izan zen. Zazpi urte luze epaiketaren zain egotea, jakinda hamar urteko espetxealdia eskatzen dutela zuretzat, latza da. Testuinguru arraroan aurkitzen zara, ez dakizu non kokatu zure burua ez pertsonalki ez profesionalki. Ni 31 urterekin ateratzen nintzen. Orduan bukatu nuen karrera eta eguneroko bizitzan leku bat bilatzea oso zaila egin zitzaidan. Badakit beste kasu batzuetan ez dela horrela izan, baina nirean bai. Oso argi neukan aurretik egin ez nituen gauza asko egin nahi nituela, ziegara itzultzeko Damoklesen ezpata beti buru gainean izanda ere.

### **2015eko epaiketa eginda kartzelako mamua desegin zenean zer sentitu zenuen?**

Arindua eta beldurra. Nik uste dut ez dugula honetaz gehiegi hitz egiten.

### **Biktima zara?**

Uf, termino potoloa da hori eta kos-

tatzen zait modu indibidualean erantzutea. Hitz horrekin identifikatzea ez zait erraza, hartutako erabakien kontzientzia dudalako. Baina bai, uste dut testuinguruak gogor jokatu zuela guztiokin. Bizi izan dugun beldurra oso sakona izan da. Uste dut zaila dela honetaz guztiaz hitz egitea konplexua delako eta jende askok bizi izandakoak ez duela aitortzarik izan. Iruditzen zait beste modu batzuk egon daitezkeela hori azalarazteko eta hori da une honetan buruan dudana, besteak beste. Sorkuntzaren bidez beste diskurtso politiko batzuk azaleratu nahi ditut.

### **Hori izan da Uharteko Zentroan egin berri duzun egoitzaren mamia, ezta?**

Bide horretan koka daiteke, bai. *Ikusezina*, *edo nire hizkuntzaren mugak* izeneko proiektua garatu dut Irina Mutt feministakatalanarekin batera. Denbora gutxi izan dugu, baina oso interesgarria izan da. Irinaren proiektuak eta nireak erabat desberdinak dira baina badituzte amankomuneko puntuak. Bera kolektibo zaurgarrien inguruan ari da lanean, ikuspuntu feministatik, zaurgarritasuna nola izan daitekeen boteretzeko modu bat aztertzen. Nire ikerketa ildoan irudian kokatua dago. Nola irudikatzen ahal diren filmatu ezin diren mundu horiek. Nahiz eta pentsatu dena eginga eta iruditan emanda dagoela, mundu ikusezin batzuk badira. Horietako bat kartzela da. Ikertzen ari naiz hainbat artistak eginiko lanak eta horretarako erabili dituzten irudiak eta estrategia filmikoak, ezin delako kamera kartzelaren egunerokotasunean sartu eta zer gertatzen den barruan grabatu.

### **Komisariotzaren inguruko ikerketa beka eman dizute. Zer da hori?**

Komisariotzaren kontzeptua oso modan dago arte garaikidean. Guk ikertzen ditugun gaien inguruan lanean ari diren beste ikertzaile eta pentsalariak saretzea eta ahal denean ekartzea da oinarria. Testuinguru bat sortu jendearekin eta elkarlana nola sustatu daitekeen ikusi.

### **Jarraipenik izanen du lan horrek?**

Mintegi bat egitea proposatu dut gaia-ri lotuta. Eta ikus-entzunezko pieza bat ekoiztu nahi dut kartzelatan idazten diren gutunetan oinarritua. Irinak ere *workshop* bat egiteko proposamena egin zuen.

## Kartzela

“Badira gauza asko kartzelaz azaltzen oso zailak direnak. Ez da beste espazio bat. Kartzela bada espazio isolatua, zerikusi handirik ez duena kaleko kodeekin. Baditu beste logika batzuk, eta batez ere baditu eragin batzuk oso fisikoak, gorputzari eta adimenari oso lotuak daudenak. Menderatze sistema bat da”.

## Katalunia

“Urriaren lehenean Bartzelonan izan nintzen eta oso polita iruditu zitzaidan. Hunkigarria. Inozentzia puntu bat zegoen. Nahiz eta jendeak ikusi beste toki batean ostiaka ari zirela, beren gorputzek ez zuten inoiz hori bizitu izan, eusten zioten. Han ikusten ziren gazteak, helduak, adinekoak... beldurrik gabe. Hemen pentsaezina da, gorputza jartzea oso zaila da. Arriskua sumatu bezain laster gorputza aktibatzen zaizu alde egiteko. Han ez zegoen horrelakorik”.

### **Zer errealitate ikusezin gehiago dago?**

Askok bere garaian adibidez, *Berwick Street Film Collective*-k gauzez eraikin handi bat garbitzen aritzen ziren emakumeak grabatu zituen dokumental batean, *Nightcleaners* deiturikoa. Oso gustura egingo nuke etxeetan 24 orduz lan egiten duten langileen inguruko filma.

### **Euritan film laburra egin duzu Irati Gorostidirekin. Zein da bere mezua?**

Lan emankorra izan da. Gure abiapuntua izan zen Euskal Herriaren narrazio politikoan argia jartzea ohikoak ez diren puntu batzuetan. Emakume askok militantzian izan duten eragina balo-





rean jartzea zen gure helburua. Bidean topo egin genuen Itxaro Bordaren testu batekin, *Klara eta biok*, non 85ean, GAlen garaian, lehenengo eszena lesbikoa planteatzen duen euskal literaturan. Gatazka gogorra hain zentrala zen garaian, baziren emakume batzuk lesbianismoan modu politiko batez pentsatzen ari zirenak. Badago gatazkaren kontaketa lineal eta normatibo bat. Nik uste dut kalte handia egin digula gauzak kontatzeko modu horrek.

#### **Modu lineala eta maskulinoa.**

Bai. Gure burua berrasmatu behar dugu. Egitura sozial eta politikoak, herri di-

namika berriak... segitzen dugu aurreko faseko parametroak errepikatzen. Eta bitartean badira beste korrante sozial batzuk, gauzak beste modu batez planteatzen dituztenak, eta aspalditik dauden egiturekin talka egiten dutenak. Kapitalismoaren krisi ekonomiko, sozial, kultural garai honetan, gure indarrak batu eta subjektu politiko berri bat sortu beharrean gaude egoerari aurre egiteko. Horretarako behar da konfiantza, aurreko ereduekin apurtzeko gaitasuna, enpatia... Oso zaila da urte asko egon garelako tentsio handiaren mende, oso gogorra izan delako, eta irmotasuna bezalako jokaerak saritu direlako. Nik

pentsatzen nuen belaunaldi batzuetako kontua izango zela, baina konturatzen ari naiz belaunaldi berriek ere oraindik karga handia dugula orokorrean.

#### **Nola ikusten duzu aldaketa Nafarroan?**

Tentsio horiek guztiak hor nabari ditut. Iruditzen zait politikoki, bai Gobernuan bai Iruñeko Udalean, gauza ezberdinak egiten ari direla berrikuntzaren bidetik, baina politika horren hartzaila batzuetan ez dakit ez ote den pazientzia gutxikoa... Enpatia gutxi ikusten dut. Hain aldaketa sakona eta alderdi desberdinen artekoa, kostatzen da, eta behar da denbora, eta hanka sartu. Edozein kasutan,

hegemonia politiko berri bat lortzeko Nafarroan, asko geratzen da oraindik.

### Eta feminismoaren zabalpena?

Duela hogeit eta piko urte hasi nintzen militarizazioaren eta orduan feminista zinela esatea bazen kasik lotsagarria. Azken hogeit eta haurtean nola aldatu den ikustea ikaragarria iruditzen zait. Gaur egun feminista zarelako esateak zentralitate bat ematen dizu testuinguru batzuetan. Ongi dago, laguntzen dizulako feminismoaren ideiak zabaltzen eta tentsio batzuk sortzen, baina bestalde beldurra ematen dit beste dinamika batzuk sortzen direlako, espektakularizazioa esate baterako. Feminismoa espektakulu bihurtzen da askotan. Kontsumo gai. Diskurtsoaren sinplifikazioak ere beldurra ematen dit. Hustu egiten da edukiz eta konplexutasuna galtzeko arriskua dago, beste gai askorekin geratu den bezala.

Gaur egun sare sozialek eta komunikabideek zentralitatea ematen digute feminista batzuei eta hori nola kudeatu ez dakigu askotan. Batzuk oso ikusgarriak diren bitartean isilean lanean aritu

diren emakume asko eta askori ez zaie erreparatu. Gu ez gara zerotik abiatu eta hori argi utzi behar da. Feminismoaren genealogia egin behar da eta belau-naldien arteko elkarriketa landu.

### Kataluniarekin harreman handia duzu. Nola ikusten duzu prozesua?

Orokorrean iruditzen zait bestelako prozedurak erabili dituztela, sareak egiterakoan edo egitura interklasisten aliantzak egiterakoan. Han dauden familia politikoen artean balore handiago aitortu diote elkarri. Aliantza berri horiek oso interesgarriak iruditzen zaizkit.

### Hemen pentsaezinak dira halako urratsak?

Agian, Nafarroan eta Iparraldean ematen ari diren pausoei haiei tankera dute neurri batean, baina argi ikusten da diskurtso politikoan libreago hitz egiten dutela guk baino. Diskurtsoak artikulatzeko modua freskoagoa da. Gaur egun iraunkor sozial bat zer izan daitekeen han ikusi dugula uste dut, konfrontazioa egin daitekeela gehiengo sozial

berriak sortuz. Oso baliogarria da Europan gauden beste mugimenduetarako. Kontzientzia kolektiboa piztu daitekeela erakutsi digu Kataluniak, baina abilitate politiko handia behar da hori lortzeko. Kolpe handia izan da jendearentzat 155a aktibatzea, kartzelatzeak, epaiketak... Orain ikusteko dago nondik bideratuko den egoera.

### Emagin elkartearen ari zara lanean, ezta?

Bai. Formazio eta ikerketa feminista egiten dugu. Udaletako Berdintasun Sailek eta bestelako elkarteek deitzen gaituzte formazioa emateko teknikariei eta bestelako lanak ere egiten ditugu hiritarrentzat. Horrez gain ikerketa lan batzuk hasita ditugu. Batean, adibidez, zaintza lanak egiten dituzten emakumeen baldintzak aztertzen hasiko gara aurki. Bestalde, genealogia feministen inguruko proiektuekin jarraitzen dugu lanean. Belau-naldien arteko elkarriketak sustatu nahi ditugu emakumeen artean, gure aitzindarien lana ezagutzeko. Komunikazioari dagokionez, metodologia zehatz bidez, genero, klase eta arrazaren inguruko ikerketa egiten ari gara. ■

Eraginkortasun energetikoaren Euskal Azoka  
Feria Vasca de la eficiencia energética

# berdeago energy

**2018ko URTARRILAK  
19, 20, 21**  
de ENERO del 2018

**LANDAKO GUNEA  
DURANGO**  
www.berdeago.com

SARRERA DOHANIK ENTRADA GRATUITA

ANTOLATZAILEA | ORGANIZADOR  
**T Z B Z**  
TAZEBAEZ

BABESLEAK | PATROCINADORES

DURANGO  
EUSKAL GOBIERNUA  
GOBIERNO VASCO

ihobe Bizkaia bbk E BAQUE ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA ENTE VASCO DE LA ENERGIA EROSKI